



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: UGALDETXO

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2018-10-03	19:05	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin, Jexux, Olaia			
Herritarrak: 32	Euskaraz: 17		Elebitan:	
	Emakumezkoak: 7		Gizonezkoak: 3 +7(<18urte)	
	<30 urte: 7 (<18 urte)	31-50 urte: 2	51-65 urte: 5	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Ez da galderarik egon.
Aurrekontuak 2020	Ez da galderarik egon.
Oiartzun	<p>- Mamuten atzeko barandila zeinena den jakin nahi da, izan ere oso gaizki eta arriskutsu dago. Mamuten galeriena da. Bertan egin nahi den hitzarmena atzealde hartan bidegorri bat egitea da, negoziatzotan dabilta, udalari emanaz gero, bera arduratuko da baranda eta bidearen berritzeaz eta bide batez bide gorriaren proiektua martxan jarri.</p> <p>- Landetxeko obra aurrekontuetan sartuta dagoen jakin nahi da, ea inbertsionarako udalak duen dirua gastatuko ote den bertan. Hala bada, ez dela diru askorik geratuko beste egin beharrak egiteko. Eraikuntza honen obrarako dituzte kopuru handi bat jada aurreztuta dago, beraz, inbertsionarako geratzen dira 2 milioi eta erdi ingurutik, milioi eta erdi eraikuntzara doaz.</p> <p>- Arizmendiko paretarekin ze asmo dago? Txukundu eta mantendu egingo da, ondare aldetik konjuntioak baitu balioa, ez eraikinak bakarrik. Eztabaida handiko gaia izanda da, iritziz ezberdinak daudelako. Baina printzipioz mantendu egongo da.</p>



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>- Haurtzaro ttiki aurrean zebra bide bat dago, kotxeak bertaraino aparkatzen dute bazterretan eta ez da deus ere ikusten, aurrerago dagon zebra bidean pibote batzuk daude jarrita zebra bide bazterreraino ez aparkatzeko eta askoz ere hobeto dago.</p>
Auzoa	<p>-Ibarreko autobus geltokia bertan geratzen da? Bai eta bertan jarriko da zebra bidetako bat, bestea juxtu bidegorrira doan zubiaren parean.</p> <p>-Nolakoa izango da ibarreko semaforoa? Botoiduna izango da, zapal dutakoan bakarrik jarriko da gorri.</p> <p>- Zergatik kendu nahi dira kaleko jardinak? Ureztatu eta gainezka egiten dute, ondorioz dena zikindu eta ureztatzen da. Harri txintzarrez jarri daitezke, ahal ere interesgarri litzake bertako bizilagunekin komentatzea, ez baita inor bertaratu.</p> <p>- Auzo lokala dena planta berean doa eta azpian trastero bat izango du. Ez daude bata bestearekin komunikatuta, baina trasterora kotxearekin sartzeko aukera dago garajetik.</p> <p>-Datorren urteko jaietarako prest egongo al da auzo lokala? Martxorako bukatuko omen da obra eraikuntzarena. Ahalik eta azkarren lokalaren proiektua egitea litzake nahia, baina ezin da jakin ziur egongo den. Auzoak 2 urte daramatza festak kalean eginez eta nazkatuta daude; elkartzeko ere Kaleko etxeen aterpean edota bertako bizilagunek duten lokal txiki batean elkartzen dira bilera egiteko; eta trasteak ere lokal ezberdinetan eta beraien etxeetan banatuta dauzkate. Aterperik ere ez dago eguraldi txarrarekin deus egiteko. Udala kontziente da Ugaldetxo auzoko lehentasuna lokal hau dela.</p> <p>- Leihorik badu auzo lokalak? Itsu entregatzen dute baina leihoak aterako dira, lokala entregatutakoan egingo den proiektuan sartu behar dira egin nahi diren gauzak.</p> <p>- Auzoak duen presa ikusita, interesgarria izan daiteke proiektua aurreratzea; bukatzen dutenerako prest izateko. Aldez aurretik planoekin proiektua aurreratu dezakegu, bestela berriz ere iraila izango dugu gainean eta festak berriz ere kalean egin beharko ditugu. Planoak hartuta elkar gaitzke udaletxeok eta ugaldetxotarrak eta aurreikusit.</p> <p>-Lokalean aire egokitua edo jartzeko estrakziorako biderik badago? Aukera egongo da baina printzipioz ez da egongo. Lokal komertzial bat izango da, tximinia, uraren hartuneak,.... Gauza guzti horiek izango ditu.</p>



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



- Poste bat dago Isasti sagardotegia jartzen duena bidegorri sarreran, ez dago kenduta. Pentsatzen da obrarekin kenduko dutela.
- Ibarreko obrarekin batera, erreka petrilla kopontzeko asmorik ote dagoen galdetzen dute. Diputazioarena da eta ez dute abisurik pasa konpontzeko asmoa dutela adieraziz.
- Skate parkean dagoen arrapala handienaren azpian lurra dago, asfaltoa luzatzea komeni litzake, bestela patineteekin lokatsetara erortzen dira eta gero patinete lokaztuarekin berriz ere pistan sartu.
- Bidegorriko bizikleten tunelak lurra oso gaizki dauka, zulo handiak daude eta gainera oso ilun dago, argiteria falta du.
- Isastitik Mendinerako bidean, Igerobi bidean asfaltatutako zatia dago, baina bukatu egiten da eta estratarako bidea, herri bidea, asfaltatu gabe dago. Urtetik urtera okerrago dago, kotxearekin jada ez dira ibili ere egiten, eta oinez joateko ere oso gaizki dago, dela lokaztuta. Bide hori asfaltatzeko pare bat eskaera sartuta dituzte eta ez omen dute erantzunik jaso.
- Urteroko eskaera, frontoia auzoan.
- Zubia asko kostatzen da baina oso gustura daude.
- Bidegorri sarreran hiru zebra bide jarraian daude, agian sobera. Pentsatzen da orain etxe horiek bukatzean, buelta bat eman beharko dela berregituratzeko.
- Autobusaren parada intxixu aurrera etortzea litzake helburu, Aldundiarekin hitz egin behar da baimena emateko, Matteoko bidegurutze hori ez baita batere egokia. Markesina jartzeko aukera badago? Hori da Aldundiarekin hitz egin behar dena.
- Futbol zelai aurreko "espalo" hori erdipurdi geratzen da, kamioiek aparkatzen dute bertan eta ez da lekurik eratzten oinez pasatzeko.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,08
bilera ongi gidatu da	9,23
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9,00
Auzotar kopurua	4,62
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,46
Saioa probetxugarria izan al da?	8,46
Egunaren egokitasuna	8,15
Orduaren egokitasuna	8,54
nLekuaren egokitasuna	6,08
Batezbestekoa	7,85